

Musika Eskolan jarduteko protokoloa: ikasleen sarrera eta irteerak eta eskolak ematea.
Protokolo hau Durangoko Udaleko Prebentzio Zerbitzuak egindako zentroaren kontingentzia-planean jasotako alderdien laburpena da.

MUSIKA-HIZKUNTZAKO IKASLEAK (7-12 URTE)

Sarrera

Ate nagusia. Ordenan eta ilaran sartuko dira ate nagusiaren eskuinaldetik (igogailuaren aldetik). Sarreran, tenperatura hartuko zaie eta eskuetako gel hidroalkoholikoa emango zaie.

Ikasleak lagunduta etortzen badira, familiak kanpoan zain egongo dira, harik eta haurrari tenperatura hartu eta eskolara sartu arte.

Ikasleak Maskararekin sartuko dira.

Taldeen sarrerak mailakatuak dira, ordu berean ahalik eta ikasle gutxien egon daitezten.

Eskolak ematea.

7-8 umeko talde txikietan egingo da. Astean egun bakar batean etorriko dira.

Ikasgelan ez dute material komunik partekatuko eta ikasgelan maskararekin egongo dira.

Taldeen artean 10 minutuko trantsizio-aldia egongo da gelak aireztatu eta garbitzeko. Ikastetxean garbiketako pertsona bat egongo da eskola-orduetan, zeregin horietan laguntzeko.

BANAKAKO MUSIKA TRESNAKO ESKOLAK

Sarrera

Ate nagusia. Sarreran tenperatura hartu eta eskuak garbitu. Ikasleak lagunduta etortzen badira, familiek haurra ikastetxera sartu arte itxarongo dute.

Instrumentu gelara iristean, kanpoan itxarongo dute irakasleak sarrera adierazi arte.

Atean bi aulki egongo dira. Batean bere gauzak utzi eta instrumentua muntatuko dute. Instrumentua muntatuta dutela sartuko dira klasean. Gela aireztatuta egongo da, eta 5 minutu erabiliko dira horretarako. Horregatik, ikasleak prestatutako tresnarekin sartu behar du.

Eskolak ematea.

Klase guztietan, oso tarteka erabiltzen den batean izan ezik, 1,5 metroko segurtasun-distantzia utziko da. Kasu guztietan atrila garbituko da saio bakoitzaren ondoren. Hala ere desberdintasunak egongo dira musika-tresnaren arabera:

Hari-instrumentuetako ikasleak: maskararekin joko dute

Piano ikasleak: maskararekin joko dute. Teklatua alkoholarekin desinfektatuko da klaseen artean

Haize-instrumentuetako ikasleak: jotzeko maskara kendu eta segurtasun-distantzia beti zainduko dute. Ikaslea irakasleari aurrez aurre ez begiratzeko moduan kokatuko da eta joko du. Gela horietan, zorua desinfektatzailez garbituko da klase bakoitzaren ondoren.

Behin klasea amaituta, ikasleak tresna garbitu eta desmuntatuko du aurretik erabili duen aulkian.

TALDEKAKO ENTSEGUAK (BANDAK, ORKESTRAK, KORUA, ENSANBLEA)

Talde hauen entseguak Auditorioan egingo dira, segurtasun-distantzia utzita. Horretarako, besaulkiak kendu dituzte eta patioa musikariak kokatzeko erabiliko da.

Instrumentuak muntatu eta desmuntatzea: ikasle bakoitzak espazio mugatu bat izango du bere gauzak utzi eta muntatzeko.

Zer egin behar da umeren batek 37°-tik gorako tenperatura badu?

Haurrak 37° edo gehiagoko tenperatura badu, bigarren aldiz hartuko zaio berriz. Tenperaturak bere horretan jarraitzen badu, haurra familiari emango diote, etxera itzul dadin.

Ikaslea bakarrik etorri bada eta ikasle nagusia bada, etxera itzuli behar duela adieraziko zaio.

Zer egin eskoletan norbaitek sintomak baditu?

Kasu horretan, leku isolatuan itzarongo du, eta familiari abisatuko zaio, jasotzera etor daitezen.

Protocolo actuación en Musika Eskola: Acceso DE ALUMNOS/AS e impartición de clases

Este protocolo es un resumen de los aspectos recogidos en el plan de contingencia del centro elaborado por Servicio de Prevención del ayuntamiento de Durango

ALUMNOS/AS DE LENGUAJE MUSICAL (7-12 AÑOS)

Acceso

Puerta principal. Entran ordenadamente y en fila por la parte derecha de la puerta principal (lado del ascensor). En el hall se les tomara la temperatura y se les administrara gel hidroalcoholico de manos. En el caso de que el alumnado venga acompañado, las familias esperaran fuera hasta que al niño/a se le haya tomado la temperatura y haya accedido al centro.

El acceso al centro es con mascarilla.

Las entradas de los grupos son escalonadas, de forma que coincidan el menor numero de alumnos a la misma hora.

Impartición.

Se hace en grupos reducidos de 7-8 niños/as. Asisten un único día a la semana.

En clase no compartiran material comun. El uso de la mascarilla en estas edades es obligatorio.

Entre grupo y grupo hay un periodo de transición de 10 minutos para ventilar y limpiar. Habra una persona de limpieza en el centro durante el horario escolar para ayudar en estas tareas.

CLASES INDIVIDUALES DE INSTRUMENTO

Acceso

Puerta principal. En la entrada toma de temperatura y lavado de manos. En el caso de que los alumnos/as vengan acompañados, las familias esperan hasta que el niño/a haya accedido al centro.

Una vez llegan al aula de instrumento, esperan **fuera a que el profesor** les indique la entrada.

En la puerta habra dos sillas. En una de ellas dejaran sus cosas y **montaran el instrumento. Entran en clase con el instrumento montado.** El aula estara ya ventilada, se usaran 5 minutos para ello. Por este motivo el alumno/a ha de entrar ya con el instrumento preparado

Impartición

En todas las clases, excepto en una que se usara de forma puntual, se mantiene la distancia de Seguridad de 1,5 metros. En todos los casos se limpiara el atril despues de cada sesión. No obstante, tres casos diferentes:

Alumnos de instrumentos de cuerda: tocaran con mascarilla

Alumnos/as de piano: tocaran con mascarilla. El teclado se desinfectara con alcohol entre clase y clase

Alumnos/as instrumentos de viento: Se quitaran la mascarilla para tocar y mantendran siempre la distancia de seguridad. El alumno/a tocara colocado de tal manera que no este nunca mirando de frente al profesor/a. En estas aulas se limpiara el suelo con desinfectante tras cada clase.

Una vez finaliza la clase, el alumno/a limpia y desmonta el instrumento en la silla que ha utilizado anteriormente.

Ensayos agrupaciones

Los ensayos se haran en el Auditorio manteniendo la distancia de Seguridad. Para ello se han quitado las butacas y la zona de patio se utilizara para colocar a los musicos/as.

Montaje y desmontaje de instrumentos: cada alumno tendra un espacio delimitado para dejar sus cosas y montar.

¿Que hay que hacer en caso de que algun nino/a presente temperatura mayor de 37°?

Si el nino/a muestra una temperatura de 37° o mas, se le vuelve a tomar una segunda vez. Si persiste la temperatura, el nino/a sera entregado a la familia para que regrese al domicilio.

Si el alumno/a ha venido solo y es un alumno mayor se le indicara que debe regresar a su domicilio

¿Que hacer si presentan s ntomas durante las clases?

En este caso, esperara en espacio aislado y se avisara a la familia para que venga a recogerlo